

Akta zenbakia: 8/2019

UDALAREN OSOKO BILKURAK 2019ko BAGILAREN 11n EGIN DAUAN EZ-OHIKO BILERA.

BERTARATU DIRENAK:

<p><u>Alkatea-udalburua:</u> IÑIGO GAZTELU BILBAO</p> <p><u>Behin-behineko Idazkaria:</u> Ortzi DE LA QUINTANA IBÁÑEZ batzarra ziurtatu dauana</p>	<p><u>Zinegotziak:</u> EUNATE GUARROTXENA ARZUBIAGA. FRANCISCO AGUAYO MEANA. ITXASO SAN ROMAN AIARTZA. ARRATE ONRAITA MARTÍN. ARANTZA ITZIAR MARTÍNEZ. MIGUEL ANGEL GAZTELU BARRENA. MARÍA LUISA MEZO LOROÑO. JOSEBA UGARTE YURREBASO. ESTIBALIZ BOLUMBURU GARCÍA. ANA MARÍA JAUREGIBEITIA OLAZABALAGA.</p>
--	---

Larrabetzuko udaletxeko batzar-aretoan, bi mila eta hemeretziko bagilaren hamaikan.

Deialdia beharden moduan egin eta eguneko aztergaien berri eman ostean 2019ko bagilaren 11n, lehenengo deialdian batu dira goian aipatutako zinegotziak, denak be Udalbatzako kideak, eta Alkate jauna den Iñigo Gaztelu Bilbao izan da batzarburua. Ana Maria Jauregibeitia Olazabalaga eta Joseba Ugarte Yurrebaso zinegotziak ez dira bertaratu eta ez-etortzea justifikatu dute.

14:30an, Alkate-Udalburu jaunak batzarra hasi dela adierazi du, batzarra egiteko behar besteko quoruma dagoela ziurtatu ostean, TAOLaren 46.2.c) eta FAAREN 90. artikuluan agindu dena betetzeko. Ostean, erabaki beharreko gaiak aztertu eta eztabaidatzeari ekin diote. Ondoko ERABAKIAK hartu dituzte:

48.- UDALBATZAREN 2019KO JORRAILAREN 11KO, 2019KO JORRAILAREN 29 ETA 2019KO BAGILAREN 5EKO AKTAK ONARTU, BIDEZKOA BADA.

Alkate-Udalburuak hitza hartu du eta aipatutako akten inguruan zerbait esateko dagoen galdetzen du. 2019ko jorrailaren 11ko aktari dagokionez Maria Luisa Mezo Loroño zinegotziak osoko bilkurara ez zela etorri adierazten du eta ez duela bozkatuko adierazten du. Beste ezer ez da adierazi edo galdetu eta akta guztiak bertaratutako kideek aho batez onartu dituzte, 2019ko jorrailaren 11ko akta izan ezik. Akta hori aldeko 8 botorekin eta abstentzio batekin gehiengo osoz onartu da.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Udalburuak batzarra amaitutzat jo du, arratsaldeko ordu biak eta hogeita hamabost minutu direnean. Nik, behin-behineko Idazkaria naizenez, hori guztia ziurtatu dut.-

O.E.
ALKATEA